

Leyendas vascas de W. WEBSTER

(Continuación)

Conforme anunciamos en el número anterior, seguimos publicando copias inéditas de los Cuentos Vascos del folklorista inglés Webster. Estas copias literales de Ch. Videgain he debido ordenarlas, corrigiendo las notorias faltas de redacción y de grafía que tiene el *Manuscrito de Bayona*; labor fatigosa, porque se ha procurado respetar siempre el texto del ó de la colaboradora de Webster, consultando en los puntos dudosos, la versión inglesa de *Basque legends*, del mismo autor inglés. Son textos sin comentarios, para estudio de los etnólogos y comparatistas.

* * *

Aquí comienza el titulado —*Basa jauna*— cuya versión inglesa viene en el citado libro —*Basque legends*— (pág. 49).

BASAJAUNA (THE WILD MAN) — (EL SEÑOR DE LA SELVA)

Behin batez baziren etche batean etcheko-andre bat eta bordariaren emaztea. (*El autor explica que se trata de la dueña y de la mujer del aparcero, entre los cuales se suele dividir el producto de la granja.*) Hunek bazituen hiru seme. Egun batez erraten diote bere amari, emateko pilota bana eta soseko olata bana: gan behar direla munduz mundu. Ama hura xangrintzen da bere seme maiteak utzi behartuela, eta hiruak partitzen dire.

Oyan baten erdian zirelarik iluna heldu zela ikusten dute eta anaya zaharrenak erraten du, agertu lehenbiziko arbola baten gainera goain dela. Atxematen du arbola luze bat eta goiti igatzen da (sic) gainekeo puntta punttaraino; bigarrenak erraten dio, —«yeusik ikusten duzu?»— ez, eztut pitsik ikusten, dio, eztuk yeus ageri».

—«Yautsi adi beeiti, asto zaharra aiz hi», eta bigarrena igatzen da eta eztu yeus ikusten —Hirugarrenak erraten dio; —«yeus etzarete zuek, ni igatuko nuk»— eta igatzen da (sic) arras puntta punttaraino.

Erraten diote —«yeusik agerida? —Bai, ke luze mehe mehe bat ageri da urrun, arras urrun; goazen hari segi». Eta hiru anayak partitzen dire elkarrekin, —Arratseko zortzi orenetan *xató* (chateau) handi batera arribatzen dire, eta atea yotzen dute, eta heldu *xiote*... basa andrea.— Galdetzen du —«nor da hor?» erresponditzen dute. —«gu gare hemen»—.

Erraten diote; —«zer nahuzue, haur gazteak, nun zabilzate tenore hun»tan? —Galdetzen dugu, otoi, indagutzu gaurko leyorra, yada zoko batez »kontent gare tristeak».

—«Nik ene senarra basajauna dut, eta harek atxemaiten bazauzte yain »zaituzte, segura da; —Kampoan ere atxemaiten bagaitu bardin yain gaitu».

Orduan sartzen — tu barnean hiru anaya hek eta hiruak hiru zokotan gordetzentu. —Gero, bederatzi orenetan heldu da basajauna; —itenzuen arrabots eta espantu, eta gero andrea ateratzen zayo, eta erraten dio: —«ez »tuk nihor.—Bai, badun norbait, aterazan, edo bertzela hiori yain haut».

Eta ateratzen dio anaya zaharrena, arras izitua; basajaunak erraten dio; —«nahi haiz enekin mutil paratu»? —erraten dio baietz, eta oraino basajauna usainka hasten da; —«*badun hemen oraino bertze norbait* », eta ateratzen dio bigarrena, —Erraten dio, —«nahi haiz enekin mutil ari?», —eta baietz; Oraino aditzen zuen usaina norbeitena, eta hirugarrena ateratzen dio; erraten diote, —«zuek hiru, egun afaldu eta gain zaizte ohera, »bainan bihar ihizirat gain gaituk denak». Partitzen dire biharamunean, arratseko zortzi orenak arte.

Bazuten hek etxean arreba bat, ttikia zen bainan denborarekin handitu zen, —Egun batez etxeko andreak eta bordariaren emazteak baratzean *erraldiak* bazituzten (*así en la versión inglesa*), arto haziak idortzen emanak, eta egun batez nihork ikusten eztuelarik hartzen du etxekoandreak arto hortarik eta ematen du bererat.

Etxeko andreak ikusi zuenean oyuka asten zayo erraten diolarik: —«zi»ren bezalako ausarta, anayek bezala fin gaixto — inbeharra» — Neskatxa hura nigarrez asten da eta gaten da bere amaren ganat eta erraten dio; —«ama, nik banuen anayik? — Bai, ene haurra» erraten dio —«zer ziren hek? — Aspaldi partitu ziren, haurra»— —Neska harek erraten dio —«gan »behar naiz ni ere, ekartzu iruteko kilo bat (sic) eta bisoseko olata bat».

Partitzen da eta arribatzen basa-jaunaren etxerat, eta atea yotzen du, eta sartzen barnerat; haren andreak erraten diolarik — «Bainan basajauna duzu hemen»... heldu dire haren anayak lehenbiziko, baiñan etzuten elkar batere ezagutzen; gero heldu da basajauna eta etxean sartzeaikin erraten

dio; —«Badun hemen enetzat zerbait»— ezetz dio; erraten dio, —«ageran», —eta kuxian irakusten dio; basajaunak erraten dio; —«nahi haiz enekin neskato plazatu?—. Baijauna» erraten dio.

Gero handik zembeit egunen buruan anayarrebek elkar ezaguten dute eta ongi besarkatzen; neskatcha hura hain ongi zelarik, arras mehatzen ari zen eta egun batez bere anaya batek galdetzen dio; —«zer duzu hola mehatzeko?» eta ihardesten dio; —«jaunak arrats guzietz eri pittina galdetzen daut ate xilotik, eta handik eria xurgatzen du»!, eta beti gero eta tontoago zohan.

Egun batez anderea etchean etzelarik, haurride hoyek elkarrekin hitzartzen dute ezperen, basayauna hil behardutela erreka batean, hulako tokitan atxematen badute; eta atxeman eta hiltzen dute.

Egun batez, haien andereak galdetzen du nun den basa-jauna; — anderearek kentzen diozka (sic) hiru agin eta etcherat ekartzen-tu, eta manatzen du nexka hura; —Arratsean zangoak garbitzen-tuzten anaie bakotcharen urari hagina bana botatzeko (*así en la versión inglesa*). Eta hirugarrena finitu orduko hiruak idi bilakatzen zaizko eta neskatcha harek landan ibiltzen zituén. —Han bildu xori bakarrekin bizi zen neskatcha hura.

Egun batez, zubi batean pasatzen zelarik, anderea hura azpian ikusten du eta erraten dio: «Idi hoiek ez baditutzu lehen ziren bezala gizon bilakutzen, labe gorritsu [*gori*] batean sartuko zaitut» —Erresponditzen dio: —«ez!, zoazi halako errekarat eta handik hiru urritz-makil ekarri eta bakotchari emoiezu bizkarrean hiru zartako».

Harek erran bezala —iten du eta yende bilakatzen dire lehengo manera berean; eta haurride guziak elkarrekin bozik ziren basajaunaren *xató* (cha-teau) hartan. Eta ongi bizi baziren, ongi hil ziren.

(Estefanella Hirigaray)

APHEZAK (LOS CURAS)

El siguiente cuento, de tema un tanto confuso, es inédito en el libro —*Basque legends*— del autor que reseñamos. Se titula *Aphezak* (Los curas) y damos la copia euskérica (ordenada igualmente) del manuscrito de Bayona.

* * *

Asko munduan bezala baziren yaun andre batzuk, —Apezek afizione handia zuten bisitan ibiltzen, —Jaun andreak ideyan pasatu zuten behar ziotela zenbeit sos kendu. —Jauna etorriko zen koléran bezala, labea piztu behar zuela, eta apezak heldu balinbaziren, labean sartu.

Egun batez, apezak han zirelarik, koléran etorri (nausia) eta andreari erran zion: —«Maria, higi adi fite, labea piztu behar dinagu».

Jaun erreterak erran *zuen* (...zion andreari...) «non sartuko naiz? —Labean. «—Eta bikarioak. —«non sartuko naiz?—. Barrikain barnean». —Mariai erran zion bikario batek, —«Otoi, libra nazazu» —Erraten zion —«zembat emain duzu?, Bortzehun liberetan libratuko zaitut»—.

Bertzeak erran zion Mariari. «Otoi, libra nazazu. Zembat emain duzu? Lauehun libera»; arte hartan labea piztu zuen yaunak ote adar batekin eta jaun erretera *criolaka* (sic) ateratu zen. Gero handik igandian ganzen María urgillu handian eta bezperak ondoan, apezak yautsi ziren behiti.

Batek erran zion bertzeari. —«Orduzgoitiko Mariaren urgillu handia!» Bertzeak; —«horrek bazakik hire eta nere moltsaren berria» —Jaun erreterak: —«Zuek bezala dirua izan banu, eznuen errea izain gibleko aldea».

ARROSA (LA ROSA)

Este cuento está publicado en francés en «Folklore du Pays basque» de Vinson (p. 102). En *Basque Legends* Webster cita la versión *Abenan* de Madame Aulnoy, pero especialmente refiere que el titulado «*Las rosas marchitas*» le han contado en vasc. más de una vez. Y esta copia del manuscrito de Bayona le contó una señora de entre 70 y 80 años, que dice la oyó de niña a una vieja niñera, quien concretamente le refirió que la sabía de niña por su madre. O sea, que tiene ya dos centurias. No trae versión inglesa.

* * *

Arrosa = Behin batez, bazen Erregebat.—Bazituen bi alaba; arras maite zituen, eta alaba hek ere bere aita maite zuten. Errege hura egun batez deitua izan zen gerla handi batetara; eta hori aditu zutenean, arras tristatu ziren. Bere aitak bakotchari eman zioten arrosa bana eta erran, «yeus »utsetan erortzen bazarete, zuen arrosak histuko dire: ez du faltatzen».

LEYENDAS VASCAS DE W. WEBSTER

Egun batez heldu de errege-seme bat, eta erraten dio alaba zaharrenari, arrats batez harekin oherat yoan behar dela; andre gazte hura arras xokatzzen da, bainan azkenik erraten dio eztuela posible errefusatzea, — Biharamunean bere arrosa arras histua atxematen du.

Haren ahizpari ere gisa berean agertzen zaio, eta harek ere igual erraten dio, eta bere boketa igual histua atxemaiten du. Errege hura gerla finitu zenean, bere etcherat etorrizen eta bere bi alaben arrosak atxeman zituen arras histuak; eta xangrina handitan izan zen.

(Stephana Hirigaray. 1874)

TARTARUA

El siguiente cuento es variante inédita de las versiones publicadas por Barandiarán, etc. La versión inglesa publicó Webster en su libro citado y Vinson la francesa en su «Folklore»; (págs. 4 y 46, respectivamente).

En ésta parecen mezclarse dos temas; el del personaje monstruoso que sólo puede recobrar su anterior aspecto normal, si se casa, y el otro del Tártaro (el *Polifemo* de la Odisea de Homero), más común, publicado por Barandiarán en diferentes versiones: la de —*Muskiako jentilla* = (El gentil de Muskia) = la de *Motrico* (1920) que no incluye el motivo del anillo misterioso, y la de *Tartaloetxeta* de Cegama (*Eusko folklore*-agosto-1921), en la que se relatan ambos motivos o escenas conjuntamente, el del muchacho que es asado y comido por el Tártaro, y el del anillo salvador del otro hermano.

* * *

Aún tiene J. M. Barandiarán recogidas más versiones (Cortézubi, etcétera). He aquí una versión de Webster.

TARTARUA (THE TARTARO)

Behin batez bazen Errege-seme bat, punimendu batez bezala munstro bat gelditua; eta etzitaken yende bilaka, ezkondu arte. Egun batez atxemaiten du neskatcha gazte bat, bainan eztu nahi, arras izitu baitzuen. Eta Tartaro harek nahi zion errestun bat eman, eta neskatchak etzuen hartu nahi.

Baino yaun gazte batekin egortzen dio; eta errestunak, erian sartu orduko erraten zuen: —«Hi hor eta ni hemen», beti oyuka eta Tartarua beti segitzen dio; neskatcha hainitz izitzen baitzen, eria pikatzen du bere errestunarekin eta botatzen du ur handi baterat; [putzurat segiturik] han itotzen da Tartarua.

(Estefanella Hirigaray, de Ahetze)

En su libro trae W. Webster otras varias versiones en inglés del tema del Tártaro; la bastante completa que M. d'Abbadie leyó en la *Société de Sciences et des Arts de Bayonne*, comunicada por el Sr. Heguiagaray, vicario de la parroquia suletina (de lengua, que jurídicamente pertenece al Bearn) de *Eskiula* (Esquioule); la del mismo investigador y mecenas Abbadie, sobre una versión oída por él en el Africa oriental, de un hombre que nunca había salido de su tierra. Apuntando Webster (*Basque Legends*) varios comentarios sobre el origen de las versiones, que hoy, al cabo de cien años, acaso no podría mantener.

Manifiesta la posibilidad de que los griegos (*Cyclope*, de Homero) hayan podido tomar la leyenda de los Vascos (*Erua*, el loco) — *Los tres hermanos* — *El Tártaro y el pequeño papagayo*, etc., siendo occidental ese mito del ojo del Sol y no oriental; del sol que se pone, más que del sol que nace.

En las historias de Teócrito y Ovidio, prosigue Webster, el origen del mito es Sicilia. La versión que damos es un esbozo o diseño de la historia «Acis y Galatea», de Ovidio. Recordando a este respecto el investigador inglés la teoría de Humboldt sobre la remota estancia de los vascos en Sicilia. Hoy todo esto suena más a leyenda.

La figura del Tártalo en estas Leyendas vascas es mentalmente inferior a sus víctimas, que invariablemente vencen a aquel, que pierde sus apuestas, a pesar de su enorme fuerza. El héroe suele ser un demente o un bobo (*Erua*, *enuxenta*, *ergela*, *xoxoa*...), pero que no tienen de ello más que el nombre. Las comunicantes de estas leyendas vascas no sabían, en general, una palabra de francés, dice el autor; así que no pudieron conocer lo publicado en la Literatura (*El pequeño sastre*... Grimm, etc.).

GODEON

El siguiente cuento es inédito; no está en la colección «Basque Legends»; solamente tenemos la versión vasca del *Manuscrito* de Bayona. El copista Ch. Videgain añade que se puede comparar con «*Les filles du feu*» de *Gerard de Nerval*. (Collection Garnier, p. 65.) Esta copia es muy confusa.

* * *

Behin batez bazen errege bat, (bere) alaba bat hainitz maite zuena; egun batez honek adiskidantzak egiten ditu gazte mahasti pikatzaile batekin, batere bere etchekoek yakin gabe. —Errege harek aditu zuenean harritu zen eta erranzion, uzten ezpaldin badu mutil gazte hura, preso emanen duela. Alabak erresponditzen dio bere aitari; —«ez aita, eztut utziko, maite dut, bere ederrez maitatu dut».

Eta errege hori goaten da furian yaun *leherren* (sic) mintzatzerat eta bere alaba preso sar araztendu; eta han zagoen gaxoa zango bat urean. Haiek diote: —«ai, eta bertzeak burdin gateg estekatua holako suerte pasatu zituenu nihor ikusigabe; egunean bietan ikusten zuen yaun bera zopa ematuak...(?). Sei urten buruan etorri zitzaion bere aita eta erraten dio: —«ene» haurra, behaiz hor; —eztakizu aita, zer ari nintzen hemen; nain zango bat urean usteldua eta bertzea harrek yaten daizte, etzintuzke bada bortz sos yaun berari emateko nere zango hauk hemendik libratzeko? —Bai, ene haurra, banuke saskika ere nahi baduzu, zure Godeon kitatu nahi baduzu: —«Ez» aita, sobra maite dut». Eta bere aita partitu zen bere alaba estatu hartan utzirik. Egundatez han pasatzen zen Godeón eta ankaspetik botatzen dio paper ttikibat, hiru hitz iskribaturik eta hetan emanak: —«Bota zazu zure» burua hila bazinde bezala eta utzazu enterratzerat». Eta andre gazte harek uzten du bere burua hila bezala.

Berehala gaztigatzen diote erregeri zer arribatu den, eta erregea harritzen da eta xangrintzen, aditu duenean bere alaba bakarra hil zaiola. Haren enterramendua bidean zohalarik Godeón errekontratzen dute, eta erraten diote: —«Utnazazue ene maitea azken aldikotz ikus dezadan». —Uzten dute; kaxa idekitzen dute eta Godeonek ukitzen du eta gazte harek oyuka *ondekitzen* (sic) du; pizten da andre gazte hura eta yende guzia estonitzen da.

ANGEL IRIGARAY & CHARLES VIDEGAIN

Orduan erregek atxematen eta dio: —«Godeonek piztu baitu, nere »alaba harentzat izanen du»; biak ezkondu ziren eta erregek bere *xatoa* (chateau) eman zioten.

(Se continuará...)

Angel IRIGARAY & Charles VIDEGAIN